astiberri

6 URTETIK AURRERA

CLAUDE ETA MORINO 2
ZORIONAK ZURI!

Gidoia eta Irudiak: Adrien Albert
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2021
Kolorea. Azal gogorra
96 orrialde. 18 x 22,5 cm. 14 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-18215-47-6

EKAINAREN 10EAN SALGAI

Zorionak Morino!

Beste bidaia xelebre bati ekingo diote Claudek eta Morinok, zenbaitentzat benetako harribitxia den sorta honetako bigarren liburukian

Morino zezenaren urtebetetzea da, eta auskalo zer prestatu duen Claude eskeletoak lagunaren eguna ospatzeko. Ez da ohiko ospakizun bat izango,horiseguru.Meriendatxobathondartzan, agian? Edo beste bidaia bat karabanan? Zaila da aurretik jakitea, zeren Clauderen oina arrain txiki baten ahoan desagertu, arrain handiago batek arrain txikia jan, eta arrantza-ontzi batek arrain handia harrapatuko baitu. Nola edo hala, oin hori topatu beharra dago! Bi lagunek hondartza nudista bat zeharkatu behar badute Kapetonera heltzeko edo Purrustegi sorginaren erratzetako armairura sartu behar badute, hala egingo dute, eta gerorako utziko urtebetetze tarta.

facebook.com/astiberri @astiberri
@astiberri.infantil
20 AÑOS ASTIBERRI
485 kutxatila. 48080. Bilbo
689 213 317 • prensa@astiberri.com

Adrien Albertek adiskidetasunari eta hazteari buruzko alegia bat eskaini zigun Claude eta Morinoren lehen abenturan, eta ildo berari jarraitzen dio bigarren liburuki honek, beti ere umore absurduaz eta nonahiko samurtasunez apaindurik.



"Beti bezala, bikaina, berritzailea, originala eta zirraragarria da komiki txiki hau. Berehala harrapatuko gaitu, ekintzaren eta kontakizunaren ustekabeko norabide aldaketak lagun, erraz irakurtzen den istorio mamitsua baita".

Lecture de petite plume

"Sorta hau dibertigarria, bitxia, nahasgarria, zentzugabea, harrigarria, originala edo txinpartatsua dela esan dute. Hitz batean esanda, harribitxi bat".

El Día de Córdoba

"Komikia egoera barregarriez betata dago, eta, hala, liburuari josita gelditukо dira umeak, lehen orritik azkeneraino".

Heraldos de Galactus

ADRIEN ALBERT 1977an jaio zen, Nantesen. Zuzenbide publikoan lizentziatu zen, eta metalurgiaria, bideogilea, etxezaina, sukaldaria, altzari erretzailea eta prentsa marrazkilaria izan da; gaur egun, umeentzako liburuak egiten ditu. Erdi Aroko Orduen liburu batean untxi koroadun bat ikusi zuenean bururatu zitzaion *Seigneur Lapin* lehen albumerako ideia... Harrez gero, beste zenbait lan kaleratu ditu, poetikoak eta bizitzarako ikasgai ederrez beteak.

Claude eta Morino 1
Madarikazioa
72 orrialde. 14 euro
ISBN: 978-84-17575-82-3


URETARA HELTZEN AZKENA, PILTZAR ZIKIN GIZENA!


CLAUDEK ETA MORINOK UDA HASIERAN EZAGUTU ZUTEN ELKAR.
ABENTURA HANDI BAT BIZI IZAN ZUTEN ELKARREKIN.
ETA GEROZTIK LAGUNAK DIRA CLAUDE ETA MORINO.
MORINO EZAGUTU AURRETIK, LURPEAN BIZI ZEN CLAUDE.
ETA HORREN AURRETIK, CLAUDEK EZ DU GOGOAN NON.
DZIUU!


PLAUST
TRANPATIA!
BIBA NI!
ESKERRIK ASKO, PILTZAR ZIKIN GIZENA.